EIBAR
Udala | Ayuntamiento

EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

HAUTAKETA-PROZESUA

ZERAMIKA IRAKASLE PLAZA BAT

Lehenengo ariketa: proba teorikoa

2026-09-22

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

1 Zer sufragio-mota aldarrikatzen du Konstituzioak?

1a) Proportzionala.

1b) Unibertsala.

1c) Erroldakoa.

1d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

2 Autonomia-estatutuetako zehaztapenetan ez da beharrezkoa honako hau sartzea:

2a) Lurraldearen mugaketa.

2b) Erakunde autonomo propioen izena.

2c) Erkidegoaren izena.

2d) Administrazio-erakundeen izena, antolaketa eta egoitza.

3 Dagokion arauak bestelako eperik ezartzen ez badu, interesdunek bete beharreko izapideak epe honetan egin beharko dira:

3a) Hilabeteko epean, dagokion egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

3b) Hogei eguneko epean, dagokion egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

3c) Hamabost eguneko epean, dagokion egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

3d) Hamar eguneko epean, dagokion egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

4 Zein da indarrean dagoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea?

4a) Azaroaren 26ko 30/1992 Legea.

4b) Urriaren 4ko 35/2005 Legea.

4c) Urriaren 1eko 39/2015 Legea.

4d) Irailaren 8ko 1/2015 Legea.

5 Udal-antolakuntza arau hauen araberakoa da:

5a) Udal guztietan Alkatea, Alkateordeak eta Osoko Bilkura daude.

5b) Udal guztietan Alkatea, Gobernu Batzarra eta Osoko Bilkura daude

5c) Udal guztietan Alkatea eta Osoko Bilkura daude.

5d) Udal guztietan Alkatea eta Gobernu Batzarra daude.

6 APAPL Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren Legearen 41. artikuluak ezartzen duenaren arabera, jakinarazpenak, ahal dela, honela egingo dira:

6a) Posta bidez.

6b) Telefono bidez.

6c) Bitarteko elektronikoen bidez.

6d) Administrazioarentzat azkarrena eta merkeena den bidea erabiliz.

7 Alkateak eta zinegotzi kopuru honek osatzen dute Tokiko Gobernu Batzarra:

7a) Legean ezarritako zinegotzi-kopuruaren herena baino gehiagokoa ez denak.

7b) Legean ezarritako zinegotzi-kopuruaren erdia baino gehiagokoa ez denak.

7c) Legean ezarritako zinegotzi-kopuruaren bi herenak baino gehiagokoa ez denak.

7d) Erantzun bat bera ere ez da zuzena.

8 Alkateak eskumena du:

8a) Bandoak emateko eta araudiak onartzeko.

8b) Enplegu publikoaren eskaintza eta lanpostuen zerrenda onartzeko.

8c) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

8d) Erantzun bat bera ere ez da zuzena.

9 Nori dagokio Udalaren ordezkaritza?

9a) Alkateari.

9b) Osoko Bilkurari.

9c) Tokiko Gobernu Batzarrari.

9d) Alkateordeei, nori bere eskumen-eremuan.

10 Emakume bati haurdunaldiarengatik edo amatasunarengatik emandako tratu kaltegarri oro:

10a) Sexu-jazarpena da.

10b) Sexuan oinarritutako jazarpena da.

10c) Sexuan oinarritutako zuzeneko bereizkeria da.

10d) Sexuan oinarritutako zeharkako bereizkeria da.

11 Honela sailkatzen dira langile publikoak:

11a) Karrerako funtzionarioak.

11b) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak.

11c) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, lan-kontratuko langileak (finkoak, mugagabeak nahiz aldi baterakoak izan).

11d) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, lan-kontratuko langileak (finkoak, mugagabeak nahiz aldi baterakoak) eta behin-behineko langileak.

12 Bitarteko funtzionarioak dira:

12a) Urgentziak eta beharrak hala aginduta, berariaz justifikatutako arrazoiak direla-eta, berez karrerako funtzionarioei dagozkien eginkizunak betetzeko aldi baterako bitarteko funtzionario izendatzen dituztenak, 5/2015 Lege Dekretuaren 10. artikuluan zehaztutako egoeretako bat gertatzen denean.

12b) Urgentziak eta beharrak hala aginduta, berariaz justifikatutako arrazoiak direla-eta, berez karrerako funtzionarioei dagozkien eginkizunak betetzeko bitarteko funtzionario izendatzen dituztenak izaera finkoarekin, 5/2015 Lege Dekretuaren 10. artikuluan zehaztutako egoeretako bat gertatzen denean.

12c) Urgentziak eta beharrak hala aginduta, berariaz justifikatutako arrazoiak direla-eta, berez karrerako funtzionarioei dagozkien eginkizunak betetzeko bitarteko funtzionario izendatzen dituztenak aldi baterako edo izaera finkoarekin, 5/2015 Lege Dekretuaren 10. artikuluan zehaztutako egoeretako bat gertatzen denean.

12d) Urgentziak eta beharrak hala aginduta, berariaz justifikatutako arrazoiak direla-eta, berez karrerako funtzionarioei dagozkien eginkizunak betetzeko bitarteko aldi baterako funtzionario gisa kontratatzen direnak, 5/2015 Lege Dekretuaren 115. artikuluan zehaztutako egoeretako bat gertatzen denean.

13 Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan aipaturiko tributuak ezarri, araupetu eta mantentzeko beharrezkoak diren Ordenantza Fiskalek, gutxienez, honakook barne hartu beharko dituzte:

13a) Zergapeko egitatea, subjektu pasiboa, erantzuleak, salbuespenak, murriztapenak eta hobariak, zerga- eta likidazio-oinarria, karga-tasa edo zerga-kuota, zergaldia eta sortzapena, eta ordenantzak onartu zireneko eta aplikatzen hasteko datak zehaztea.

13b) Aitorpen- eta sarrera-erregimenak, eta ordenantzak onartu zireneko eta aplikatzen hasteko datak.

13c) Ordenantzak onartu zireneko datak eta haien aplikazioaren hasiera-datak.

13d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira

14 Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legean eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:

14a) Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.

14b) Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatze-aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen.

14c) Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.

14d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

15 Lan-arriskuak babesteko azaroaren 8ko 31/1995 Legea:

15a) Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginean araututako lan-harremanen eremuan ez ezik, herri-administrazioen zerbitzura dauden langileen administrazio- edo estatutu-harremanen eremuan ere aplikatuko dira, kasu honetan, lege honetan edo berau garatzeko arauetan aurreikusten diren berezitasunekin.

15b) Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginean araututako lan-harremanen eremuan baino ez da aplikatuko.

15c) Administrazio publikoetako langileen administrazio- edo estatutu-harremanetan baino ez da aplikatuko, Lege honetan edo berau garatzeko arauetan jasotzen diren berezitasunekin.

15d) Erantzun guztiak dira okerrak.

16 Portzelana laberatzeko tenperatura

16a) 1250º-1350º

16b) 1120º-1200º

16c) 950º-1100º

16d) 780º-900º

17 Tenperatura baxuko buztina laberatzeko gehienezko tenperatura

17a) 950º
17b) 1100º
17c) 1200º
17d) 1000º

18 Portzelanaren oinarrizko konposizioa

18a) Kaolina, kreta eta bentonita.
18b) Feldespatoa, txamota eta silizea.
18c) Kuartzoa, feldespatoa eta kaolina.
18d) Kaltzio karbonatoa, kuartzoa eta zinka.

19 Buztin gorria birziklatzeko baldintza ezin hobeak

19a) Buztin hezea.
19b) Buztin erabat lehorra.
19c) Buztin hezea txamotarekin.
19d) Buztina eskaiolarekin.

20 Buztinezko busto bat egiteko erremintak

20a) Modelatzeko zotzak.

20b) Arrabolak.

20c) Espatulak.

20d) Pintzelak.

21 Pieza bat tornuan hasteko, beharrezkoa da

21a) Buztina lehorra egotea.

21b) Buztina bustitzea, barbotina-egoerara iritsi arte.

21c) Buztina bilgarri komertzialetik atera eta zuzenean erabiltzea.

21d) Aurretik buztina oratzea.

22 Buztinezko bi xafla batzeko beharrezkoa da

22a) Arraspatu eta batu beharreko gainazalei barbotina ematea.

22b) Batu beharreko gainazalak ureztatzea.

22c) Batu beharreko gainazalak kontaktuan jartzea.

22d) Batu beharreko gainazalei esmalte zeramikoa ematea.

23 Tamaina handiko pieza modelatua egiteko beharrezkoa da

23a) Buztinak txamotarik ez edukitzea.

23b) Buztinak txamota edukitzea.

23c) Buztina oso hezea egotea.

23d) Buztinak manganesoa edukitzea.

24 Eskaiolazko molde bat egiteko, nahasketaren proportzio egokia hauxe da:

24a) 2 litro ur eta 1 kg eskaiola.

24b) 1 litro ur eta 2,5 kg eskaiola.

24c) 2,5 litro ur eta 1 kg eskaiola.

24d) 1 litro ur eta 1,5 kg eskaiola.

25 Isurketa bidezko barbotina (koladako barbotina) zera da:

25a) Buztina urarekin.

25b) Buztina ozpinarekin.

25c) Buztin desmalutatua (arcilla defloculada).

25d) Buztina txamotarekin.

26 Piezak laberatzeko

26a) Hezetasuna izan behar dute.

26b) Erabat lehortuta egon behar dute.

26c) Oso horma lodiak izan behar dituzte.

26d) Eskaiola-arrastoak izan behar dituzte.

27 Zertarako balio dute kono pirometrikoek?

27a) Labearen hezetasuna xurgatzeko.

27b) Piezei eusteko.

27c) Labea kargatzeko (estibatzeko).

27d) Tenperatura neurtzeko.

28 Labeak kargatzeko (estibatzeko) plakak zerezkoak dira?

28a) Igeltsuzkoak.
28b) Silizio karburozkoak.
28c) Kaolinezkoak.
28d) Metalezkoak.

29 Estrusio-makina batek honetarako balio du:

29a) Azulejuak egiteko.
29b) Buztin ezberdinak nahasteko.
29c) Txantiloiekin formak egiteko.
29d) Piezak esmaltatzeko.

30 Pasta erregogorra zera da:

30a) Tenperatura altuko buztina.
30b) Tenperatura baxuko buztina.
30c) Buztin desberdinen nahasketa bat.
30d) Tenperatura altuko buztina txamotarekin.

31 Behar bezala laberatu eta espazioa optimizatzeko, piezak…

31a) Esmalterik ez badute, pilatu egin daitezke.
31b) Esmaltea badute, ukitu egin daitezke.

31c) Bero-iturriarekin kontaktuan egon daitezke.

31d) Elkarrengandik 10 cm-ra egon daitezke.

32 Engobe bat zera da:

32a) Kalka zeramiko bat hirugarren errealdian ematen dena.

32b) Fritakin bat.

32c) Esmalte pigmentudun bat.

32d) Pieza lehor edo heze baten gainean aplikatzen den pasta koloreztatu bat.

33 Egosketa batean atmosfera erreduzitzailea arrazoi honengatik sortzen da:

33a) Oxigenorik eza.

33b) Silizea egotea.

33c) Karbono monoxidorik eza.

33d) Kaltzio karbonatoa egotea.

34 Pieza bati esmaltea emateko moduak

34a) Murgilduta.

34b) Pintzelez.

34c) Pistolaz.

34d) Aurreko guztiak dira zuzenak.

35 Zer material urgarrik osatzen du esmalte bat?

35a) Silizio karburoak.

35b) Kobaltoak.

35c) Aluminak.

35d) Sodio feldespatoak.

ERRESERBAKO GALDERAK

36 Esan zein den erantzun zuzena:

36a) EAEko administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren aurrekontu publikoetan.

36b) EAEko administrazio publikoek ez dute genero-ikuspegia txertatu behar beren aurrekontu publikoetan.

36c) EAEko administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu ahalko dute beren aurrekontu publikoetan.

36d) Euskal administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu beharko lukete beren aurrekontu publikoetan.

37 Eskaiolazko moldeak egitea bateragarria da buztina birziklatzearekin?

37a) Ez da bateragarria tailer berean.

37b) Bai, tailerreko gune bereizietan.

37c) Bai, hurbil egitea komeni da.

37d) Ez du garrantzirik.

38 Esan zein den erantzun zuzena:

38a) Espainiarrek eskubidea dute bizilekua askatasunez aukeratzeko eta lurralde nazionalean zehar ibiltzeko.

38b) Espainiarrek ez dute eskubiderik bizilekua askatasunez aukeratzeko eta lurralde nazionalean zehar ibiltzeko.

38c) Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidea bermatzen da.

38d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

39 Zer kolore sortzen du kobalto oxidoak?

39a) Berdea.

39b) Horia.

39c) Urdina.

39d) Gorria.

40 Esan zein den erantzun zuzena:

40a) Guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakasteko askatasuna aitortzen da.

40b) Botere publikoek gurasoei dagokien eskubidea bermatzen dute, hauen seme-alabek heziketa erlijioso eta morala har dezaten, beraien uste sendoei dagokien bezalaxe.

40c) Oinarrizko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa da.

40d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

41 Gresaren ezaugarri nagusia(k)

41a) Urgarri portzentaje handia.

41b) Tenperatura baxua.

41c) Porotsua eta zeharrargia.

41d) Iragazgaitza eta opakua.

42 **1/2023 Legerako printzipio orokorrak dira:**

42a) Tratu-berdintasuna.

42b) Aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea.

42c) Generoaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea.

42d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

43 **Txinako bone portzelanaren osagai berezia**

43a) Kaltzio fosfatoa.

43b) Kaolina.

43c) Eztainua.

43d) Kuartzoa.

44 **Udal-korporazioek beren tributuak ezartzeko, kentzeko eta antolatzeko eta dagozkion tributu-kuotak zehazteko beharrezkoak diren elementuak finkatzeko hartutako behin-behineko akordioak, bai eta dagozkion ordenantza fiskalen onespenak eta aldaketak ere, erakundearen iragarki-taulan jendaurrean jarriko dira, gutxienez:**

44a) Hogeita hamar egunez gutxienez.

44b) Hogei egunez gutxienez.

44c) Hamabost egunez gutxienez.

44d) Berrogei egunez gutxienez.

45 **Zer osagaik eragiten du buztin gorriaren kolorazioa?**

45a) Aluminak.

45b) Burdin oxidoak.

45c) Kobre oxidoak.

45d) Bentonitak.

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar